

ALLERRU MENDIZALE TALDEA

Urte batzutako isilaldiaren ondoren berriro hasi zaigu ALLERRU MENDIZALE TALDEA lanean. Ez al zenekiten? Orain badakizue ba eta ez duzue aitzakiarik mendira joan beharrean etxean etzanda gelditzeko.

Oraingoz, eman dituzten pausoak laburrak baina sendoak izan dira eta haien asmoa taldea garai batean izan zena izatera iristea da, gutxiago ez behintzat.

Gogoz ari zaizkigu lanean eta urtea hasi zenetik hainbat irteera antolatu dituzte zuretzat (bai, zuretzat) eta lezoar guztientzat. Elurretara bizpahiru irteera, Irumugarrietara guardetxetik abiatuta. San Donatora Lizarrako tuneletik, Urnietatik Aranora Adarra mendian barrera,... Ez dira, ordea, mendia zapaltzera bakarrik joaten, MENDIA BE-



Aralarko tontorretan ezagutzen dituzte lezoarrak.

REZ GARBIA kanpainen parte hartu zuten Jaizkibel mendian garbiketa lanak eginaz. Ez da gutxi, ez, orain arte egin dutena eta etorkizunari begira daude dagoeneko. Ideia berrien hausnarrean, udazkenetik aurrera hilean gutxienez irteera bat egin nahi dute (Aizkorri, Mendaur, Ernio,...). Aztertzen ari dira Piriniotara joateko aukera baina oraindik gauza zehatzik ez. Baina hori egin asmo dutenaren zati bat besterik ez da. Elurretarako irteerak, hurrekin asteburuko irteerak albergeetan lo eginaz, mendiari buruzko kultur astea (mendi zinema emanaldiak, hitzaldiak, ibilaldi neurtua,...).

Honek guztiak lan haundia eskatzen du eta dirua, jakina. Diruz ez dabilta oso ondo oraindik ez bait dute jaso aurreko udal gobernu taldeak agindutako diru-laguntza eta diru apur bat eskuratzeko azokaren bat antolatzeko asmotan dabilta. Horrez gainera beharrezkoa da ahalik eta jende gehien biltzea irteeratan honela bidaiak asko merketzen baitira.

Esandakoaz gain eskaldada kontutan dabilzan herriko gazteekin elkarlanean gustora arituko lirakeela aitortzen dute, azken batean biak gauza beretsuan baitabilta.

Hau da oraingoz Allerru Mendizale Taldeaz esan dezakeguna baina ziur gaude aurrerantzean zer esana pranko sortuko dutela orain arteko bideari jarraitzen badiote. Hala bedi.

XAXIKO